



**AGINDUA, ETXEBIZITZA ETA HIRI AGENDA KO SAILBURUARENA,
ETXEBIZITZAREN ERREGELAMENDU-XEDAPENAK PRESAZ ALDATZEKO
DEKRETU-PROIEKTUA ALDEZ AURRETIK ONARTZEKO.**

2025eko maiatzaren 23ko Aginduaren bidez, hasiera eman zitzaion etxebizitzaren arloko erregelamendu-xedapenak presaz aldatzeko dekretu-proiektua egiteko prozedurari.

Idazketa amaituta, etxebizitzaren arloko erregelamendu-xedapenak presaz aldatzeko dekretu-proiektua izenburua duen testu bat proposatzen da. 38 artikulua, xedapen iragankor bat eta bi azken xedapen ditu.

Hori horrela, eta Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 15. artikuluan xedatutakoaren arabera, xedapen orokorren proiektuak idatzitakoan, prozedura hasteko agindua eman duen organoak alde aurreko onarpena eman beharko die dagozkien izapideak egin aurretik.

EBAZTEN DUT

LEHENENGOA.- Aldez aurreko onarpena ematea etxebizitzaren arloko erregelamendu-xedapenak premiaz aldatzeko dekretu-proiektuari (eranskin gisa erantsi da).

BIGARRENA.- Proiektu hori egiteko prozeduraren instrukzio-izapideekin jarraitzea Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzan, Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abenduaren 3ko 411/2024 Dekretuaren 6. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

ETXEBIZITZA ETA HIRI AGENDA KO SAILBURUA

Donostia kalea 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ

Este documento es una representación del documento original electrónico, verificable en la sede electrónica mediante el localizador indicado al pie de página.
Dokumentu hau jatorrizko dokumentu elektronikoaren irudikapen bat da, egoitza elektronikoan egiaztagarria, orri-oinean adierazitako lokalizatzailearen bidez.





**..../2025 DEKRETUAREN AURREPROIEKTUA,..... aren....
(e) koa, etxebizitzaren arloko erregelamendu-xedapenak
presaz aldatzen dituen.**

Vitoria-Gasteiz, 2025eko irailaren X (a)



xxx/2025 DEKRETUA, xxxaren xx (e) koa, etxebizitzaren arloko erregelamendu-xedapenak presaz aldatzen dituen.

Etxebizitzaren ekainaren 18ko 3/2015 Legearen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoan etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea arautzea, Espainiako Konstituzioaren 47. artikuluan aurreikusitako agindua garatuz eta betez, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 10.31 artikuluan jasotako administrazio honen eskumen eskusiboarekin bat etorriz.

Etxebizitzaren arloan eskumena duten botere publikoek, hiru eskumen-mailek, legearen 10. artikuluan jasotzen den bezala, aipatutako eskubidea gauzatzeko neurri egokiak sustatu behar dituzte.

Laurogei parte-hartzaile baino gehiagok 2022ko azaroaren 30ean sinatutako 2022-2036 Etxebizitzaren aldeko Itun Sozialak administrazio horiek eta etxebizitzaren arloan lan egiten duten gainerako pertsonak eta eragileak biltzen ditu, etxebizitza babestuen parkea eta birgaitutako etxebizitzaren kopurua handitzeko funtsezko helburuarekin, besteak beste, irauteko bokazioarekin eta epe luzera lan egiteko.

Legeak berrogei erregelamendu-igorpen baino gehiago jasotzen ditu, gaur egun indarrean dauden arau asko aldatzea eskatzen dutenak. Lege hori garatzeak berekin ekarriko du aldatu beharreko xedapenen kopurua eta zenbait legegintzalditako arauak egiteko eta aldatzeko prozedura bera. Hamar dekretu eta agindu baino gehiago eman dira legea garatzeko, baina arau gehiago behar dira legea garatzeko edo gaur egun indarrean dauden arauak aldatzeko.

Gaur egun, euskal gizartea egoera global eta lokal batean dago, eta erronka erabakigarriak ditu epe labur, ertain eta luzera. Erronka horiek eragin argia dute etxebizitzaren arloan, eta, beraz, administrazioak eta botere publikoek azkar jardun behar dute. Gainera, Europako erakundeek araudi batzuk azkar egokitu behar dituzte, eta administrazio honi premia eta eraginkortasunez jardutea eskatzen diote.

Arauak X. kapitulu jasotzen ditu, beste horrenbeste arau aldatzen dituztenak.

Lehenik eta behin,

Adierazi behar da dekretu hau izapidetzean bete dela Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistikar gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 20. artikuluan aurreikusitakoa, bai eta generoaren arabera inaktuaren aurretiazko ebaluazioa egiteko eta emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak desagerrarazteko eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzeko jarraibideetan aurreikusitakoa ere.

Ondorioz, Etxebizitza eta Hiri Agendako sailburuaren proposamenez, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarekin bat etorriz, eta Gobernu Kontseiluak 2015eko.....



aren... (e) (a) n egindako bilkuran proposamena aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATU DUT:

I. KAPITULUA

Babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzoruaren inguruko finantza-neurriei buruzko martxoaren 4ko 39/2008 Dekretua aldatzea.

Lehenengo artikulua.

Aldatu egiten da 12. artikulua 3. apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

"3.- Udaletako edo foru-aldundietako organo eskudunek berariaz eskatuta, etxebizitzagaitan eskumena duen sailean eginkizun hori esleituta duen organoak, ebazpen bidez, artikulua honen 1. apartatuan araututako esleipen-prozeduretatik kanpo utzi ahal izango ditu, eta zuzenean esleitu ahal izango dizkie etxebizitzak edo zuzkidura-bizitokiak terrorismoaren biktimei, indarkeria matxistaren biktimei eta hirigintza-jarduketengatik ordezkotako bizitokia izateko eskubidearen titularrei soilik; halakotzat hartuko dira horiek arautzen dituen araudian jasotakoak. Eskaerarekin batera, gizarte-zerbitzuen txostena aurkeztu beharko da.

Udaletako organo eskudunek berariaz eskatzen badute errentamendu- edo erabilera-lagapeneko kontratua sinatu ondorengo urtean errenta edo kanona ordaintzen laguntzeko konpromisoa barne dela, onuradunek ordaintzen ez badute, zuzenean esleitu ahal izango dizkie etxebizitzak edo zuzkidura-bizitokiak maiatzaren 14ko 1/2013 Legearen 1. artikuluan aipatzen diren kolektibo bereziki kalteberei (1/2013 Legea, maiatzaren 14koa, hipoteka-zordunen babesa, zorraren berregituratzea eta alokairu soziala indartzeko neurriei buruzkoa), baldin eta okupatzen zuten etxebizitzatik botatzea ekar dezakeen prozedura judizial batean badaude.

Eskaerarekin batera, oinarritzko gizarte-zerbitzuen txosten bat aurkeztu beharko da, gizarte-bazterkeriaren arriskua egiaztatzen duena eta eragindako familia-unitaterako egindako esku-hartze plana jasotzen duena. Gainera, interesdunaren baimena jaso beharko du udal eskatzailearen edo Alokabide Saren gizarte- eta hezkuntza-arloko laguntza-zerbitzua eskuratzeko.

Ebazteko eta ebazpena alderdi interesdunei, administrazio eskatzaileari eta aipatutako kolektiboetako kideei jakinarazteko gehieneko epea hiru hilabetekoa izango da. Gehieneko epea igaro eta ebazpen espresua jakinarazi ez bada, ezetsizat joko da administrazio-isiltasun negatiboaren bidez.

Era berean, aipatutako prozeduretatik salbuetsi ahal izango dira, eta etxebizitzak eta lokalak zuzenean esleitu ahal izango zaizkie administrazio publikoei, bai eta etxebizitzarekin zerikusia duten gizarte-programak garatzen dituzten irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuei ere. "

Bigarren artikulua.



Aldatu egiten da 29. artikulua 2. apartatuaren a) letra, eta honela geratzen da idatzita:

"a) Euskal Autonomia Erkidegoan etxebizitzaren eta zuzkidura-bizitokiaren gutxienezko bizigarritasun-baldintzak eta diseinu-arauak arautzen dituen ekainaren 28ko 80/2022 Dekretuaren 5.5 artikuluan ezarritako azalera-ratioak betetzen ez dituzten bizikidetza-unitateak izan beharko dira. Baldintza hori betetzen dela egiaztatzeko, etxebizitza berean gutxienez urtebete daramaten bizikidetza-unitateko kide guztien errolda-ziurtagiria aurkeztu beharko da. "

Hirugarren artikulua.

Aldatu egiten da 46. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

1. – Erosteke 6.000 euroko edo gehiagoko zuzeneko laguntzak jaso dituzten etxebizitzak eta lokalak ezin izango dira inter vivos borondatez eskualdatu 10 urteko epean, salerosketa-ekritura publikoa ematen denetik hasita, aldez aurretik jasotako laguntzak eta dagokien legezko interesa itzuli direla egiaztatzen ez bada.

Birgaitze-jarduketara babestuengatik 6.000 euroko edo gehiagoko zuzeneko laguntzak jaso dituzten etxebizitzaren edo lokalen titularrek, bai obra partikularretarako bai komunitate-obretarako, ezin izango dituzte etxebizitza edo lokal horiek inter vivos borondatez erabili obra-amaiera ziurtatzen denetik 10 urteko epean, jasotako laguntzak eta dagokien legezko interesa itzuli direla egiaztatzen ez bada.

2. – Itzulketatik kanpo geratuko dira:

a) 1. apartatuan aipatutako laguntzak, 6.000 eurotik beherakoak direnean.

b) Etxebizitzaren edo lokalaren titular kide baten alde esleitutakoak, Izatezko Bikoteen Erregistroan inskribatutako edo inskribatu gabeko bikoteen banantze-, dibortzio- edo haustura-prozesuen ondorioz, eta lehen mailako odol-ahaidetasunezko harremana duten kideek osatutako bizikidetza-unitateak haustearen ondorioz.

3.- 6.000 euroko edo gehiagoko zuzeneko laguntza ekonomikoak jaso dituzten etxebizitzaren edo lokalen titularrek etxebizitzaren jabaria erabiltzeko mugapenaren erregistro-inskripzioa egin beharko dute 10 urtez.

Laugarren artikulua.

Beste xedapen gehigarri bat gehitzen da, eta honela geratzen da idatzita:

"Hirugarrena.- Araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiaren erabilera.

Araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiaren erabilerak muga hauek ditu:

a) Debekatuta dago edozein obra egitea, higiezin konpontzeko, kontserbatzeko eta mantentzeko lanak izan ezik.

b) Erabiltzaileen sarbide-araubidea hileko kanon bat ordainduz gauzatuko da. Kanon hori emakida esleitzen den unean zehaztuko da, ostatu-unitate bakoitzeko gorako partida bakoitzeko.



c) Erabiltzaileek ezin izango dute beste etxebizitzarik eduki, ez jabetzan, ez hura erabiltzea dakarren edozein tituluren bidez, salbu eta 70 urtetik gorakoak badira eta adinekoei soilik zuzendutako zuzkidura-bizitoki baten esleipena eta beren etxebizitza "Bizigune" Etxebizitza Hutsen Programan sartzea eskatzen badute batera.

Kasu horretan, eskaera Alokabide SAn aurkeztu beharko da, zuzkidura-bizitokia eskatzen den udalerria edo udalerriak adierazita.

Etxebizitzaren egoerari buruzko txostena aldeko balorazioarekin amaitzen bada, Alokabide SAk etxebizitza-premiaren baldintzatik salbuesteko eta zuzkidura-bizitoki bat zuzenean esleitzeko eskatuko du, Babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzoruaren inguruko finantza-neurriei buruzko martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuaren 12. eta 16. artikuluetan aurreikusitako moduan, eta interesdunek babes publikoko etxebizitzak eskuratzeko gainerako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko behar den dokumentazioa erantsiko du.

d) Sarbidea hilabeteka emango da, gehienez urtebeterako, eta urtero lau aldiz luzatu ahal izango da, honako salbuespen hauekin:

1.- Apartatu honen c) letran aipatzen diren 70 urtetik gorako pertsonen kasuan, urtero luzatu ahal izango da zuzkidura-bizitokiak haien autonomia pertsonalerako egokia izaten jarraitzen duen bitartean eta Alokabide SAri lagatako etxebizitzak "Bizigune" Etxebizitza Hutsen Programan sartuta jarraitzeko baldintzak betetzen dituen bitartean.

2.- Etxebizitza izateko eskubide subjektiboa aitortua duten edo eskubide hori aitortzeko moduan dauden pertsonen kasuan, hileru luzatu ahal izango da, alokairu sozialeko etxebizitza bat edo etxebizitzarako prestazio ekonomikoa esleitu arte".

II. KAPITULUA

«Bizigune» Etxebizitza Hutsen Programa arautzen duen abenduaren 23ko 466/2013 Dekretua aldatzea.

Bosgarren artikulua.

Aldatu egiten da 8. artikuluen 1., 2. eta 3. zenbakiak, eta honela geratzen dira idatzita:

"1.- Lagatako etxebizitzaren titularrek kontraprestazio ekonomiko bat jasoko dute; hain zuzen ere, Alokabide SAk etxebizitzaren giltzak jasotzen direnetik aurrera ordainduko dien aldizkako kanon bat.

2.- Kanona etxebizitzaren errentaren % 80 izango da, merkatuko batez besteko prezioan kalkulatuta, eta gehienez ere 700 euro hilean. Kanon hori Hiri Errentamenduen azaroaren 24ko 29/1994 Legearen 18. artikuluan xedatutakoaren arabera eguneratuko da.

3.- Hala ere, etxebizitzaren arloan eskumena duen sailburuaren agindu bidez bizitegi-merkatu tentsionatuko eremu izendatzen diren udalerrien kasuan, muga horiek handitu ahal izango dira Alokairu Merkatuaren Estatistikak (AME) etxebizitza dagoen udalerriari ratio bererako egotz dakiokkeen batez besteko prezioaren % 95era, salbu eta



gehikuntza hori aurreko paragrafoan ezarritako gehieneko muga baino txikiagoa bada."

Seigarren artikulua.

Aldatu egiten da 13. artikulua, eta bi paragrafo izango ditu; honela geratzen da idatzita:

"1.- «Bizigune» Etxebizitza Hutsen Programan sartutako etxebizitzak pertsona fisikoei eta bizikidetza-unitateei alokatu beharko zaizkie, baldin eta babes ofizialeko etxebizitzak eskuratzeko indarrean dagoen araudian aurreikusitako baldintzak betetzen badituzte, Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan errentamendu-araubideko etxebizitza-eskatzaile gisa inskribatuta badaude eta urteko diru-sarrera haztatuak 45.022,57 eurotik gorakoak ez badira, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpena aurkezteko epea amaitu ondoren, kontratua sinatu aurreko zergaldian.

2.- Errentariei eska dakizkiekeen urteko gehieneko diru-sarrera haztatuen muga urte bakoitzeko urtarilaren 1ean eguneratuko da, Eustatek argitaratutako Euskadiko Kontsumoko Prezioen Indizearen urtetik urterako ehuneko-aldakuntza kontuan hartuta, eguneratze horren unean argitaratutako urtetik urterako azken indizeari dagokionez."

Zazpigarren artikulua.

Aldatu egiten da 14. artikulua 1. apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

"1. Hasierako urteko errenta pertsona errentariaren edo bizikidetza-unitate errentariaren urteko diru-sarrera haztatuen % 30 izango da, babes ofizialeko etxebizitzetako buruzko araudiaren arabera kalkulatuta."

III. KAPITULUA

144/2019 Dekretua aldatzea, irailaren 17koa, zeinaren bidez arautzen baita merkatu libreko etxebizitzaren alokairurako bitartekaritzako ASAP programa (Alokairu Segurua, Arrazoizko Prezioa).

Zortzigarren artikulua.

Aldatu egiten da 21. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

"ASAP (alokairu segurua, arrazoizko prezioa), merkatu libreko etxebizitzak alokatzeko bitartekaritza-programan sartutako etxebizitzaren eskatzaile izan ahalko dira Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan izena emanda dauden pertsonak edo bizikidetza-unitateak, alokairuko etxebizitza eskatzen badute eta honako baldintza hauek betetzen badituzte:

1.- Urtean 15.000 eta 45.022,57 euro bitarteko diru-sarrera gordin haztatugabeak izatea, Babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzorua inguruko finantza-neurriei buruzko martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuaren 21. artikuluan edo hori ordeztzen duen araudian aurreikusitakoaren arabera.

2.- Errentariei eska dakizkiekeen urteko gehieneko diru-sarrera haztatuen muga urte bakoitzeko urtarilaren 1ean eguneratuko da, Eustatek argitaratutako Euskadiko



Kontsumoko Prezioen Indizearen urtetik urterako ehuneko-aldakuntza kontuan hartuta, eguneratze horren unean argitaratutako urtetik urterako azken indizeari dagokionez.

3.- Ordaindu gabeko zorrik ez izatea errentak edo kanonak ez ordaintzeagatik edo errentamendu-erregimenean esleitutako babes publikoko etxebizitzetan, zuzkidura-bizitokietan edo parekatutako etxebizitzetan eragindako kalteengatik.

4.- Etxebizitzaren errentak, hasierakoa zein Hiri Errentamenduei buruzko azaroaren 24ko 29/1994 Legearen 18. artikuluaaren arabera eguneratua, ez gaitzitea urteko diru-sarrerara gordin haztatuen % 30 ".

Bederatzigarren artikulua.

Eranskina aldatzen da, eta honela geratzen da:

ASAP (Alokairu Segurua, Arrazoizko Prezioa), merkatu libreko etxebizitzaren bitartekaritza-programan, gehieneko errenta hauek onartuko dira:

<i>Zonaldeak: etxebizitza babestuen gehiengo prezioak</i>	<i>Bitartekaritza-programako gehiengo errentak hileko</i>
<i>I. TALDEA</i>	<i>900,00 euro</i>
<i>II. TALDEA</i>	<i>800,00 euro</i>
<i>III. TALDEA</i>	<i>750,00 euro</i>

1. – I. taldeko udalerriak: EAEko hiru hiriburuak:

Araba: Vitoria-Gasteiz.

Bizkaia: Bilbao.

Gipuzkoa: Donostia.

2. – II. taldeko udalerriak: metropolialdeak, tarteko udalerriak eta 10.000 biztanletik gorako udalerriak:

Araba: Laudio, Amurrio.

Bizkaia: Barakaldo, Getxo, Portugalete, Santurtzi, Basauri, Leioa, Galdakao, Sestao, Durango, Erandio, Amorebieta-Etxano, Bermeo, Mungia, Gernika-Lumo, Ermua, Sopela, Arrigorriaga, Valle de Trápaga-Trapagaran, Etxebarri, Abanto y Ciérvana/Zierbena, Ortuella, Muskiz, Berango, Derio, Gorliz, Sondika, Plentzia, Ugao-Miraballes, Urduliz, Zamudio, Alonsotegi, Loiu, Lezama, Larrabetzu, Zaratamo, Barrika, Zierbena, Zeberio, Lemoiz, Arrankudiaga.

Gipuzkoa: Irun, Erretera, Eibar, Zarautz, Arrasate, Hernani, Tolosa, Lasarte-Oria, Hondarribia, Pasaia, Andoain, Bergara, Azpeitia, Beasain, Azkoitia, Elgoibar, Oñati, Oiartzun, Zumarraga, Urnieta, Usurbil, Lezo, Orio, Astigarraga.

3. – III. taldeko udalerriak: gainerako udalerriak.



Etxebizitzaren arloan eskumena duen sailburuaren agindu bidez bizitegi-merkatu tentsionatuko eremu izendatzen diren udalerrien kasuan, muga horiek handitu ahal izango dira, Alokairu Merkatuaren Estatistikak (AME) ratio bererako etxebizitza dagoen udalerriari egotz dakiokeen batez besteko prezioaren % 100era arte, igoera hori gehieneko errenta gisa ezarritako muga baino txikiagoa denean izan ezik".

IV. KAPITULUA

Euskal Autonomia Erkidegoan etxebizitzaren eta zuzkidura-bizitokiaren gutxieneko bizigarritasun-baldintzak eta diseinu-arauak arautzen dituen ekainaren 28ko 80/2022 Dekretua aldatzea.

Hamargarren artikulua.

Aldatu egiten da 7. artikulua 1. apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

"1. Euskal Autonomia Erkidegoko etxebizitza eta zuzkidura-bizitoki guztiek, bai eta horiek hartzen dituzten eraikinek ere, dekretu honen I. eranskinean jasotako gutxieneko bizigarritasun-baldintzak bete beharko dituzte, elkarlaneko etxebizitzaren kasuetan izan ezik; izan ere, haien ezaugarriengatik, I. eranskinean zuzkidura-bizitokiei buruz ezarritako arauak bete beharko dituzte, haien erabilera- eta jabetza-araubidea edozein dela ere. Industria-erabilerako edo erabilera tertziarioko eraikinen birmoldaketa osoaren edo partzialaren ondoriozko etxebizitzak, bai eta etxebizitza-erabilerarako bizitegi-eraikinetako beheko solairuetako merkataritza-lokalak ere, elkarlaneko etxebizitzekin parekatuko dira ondorio horietarako".

Hamaikagarren artikulua.

10.2 artikuluari c) apartatua gehitzen zaio:

"c) Industria-erabilerako edo hirugarren sektoreko erabilerako eraikinak osorik edo zati batean birmoldatzearen ondoriozko etxebizitzak, bai eta etxebizitza-erabilerarako bizitegi-eraikinetako beheko solairuetako merkataritza-lokalak ere, plangintzak alde aurretik aurreikusi beharrik gabe."

V. KAPITULUA

Etxebizitza bat okupatzeko eskubide subjektiboari buruzko urriaren 10eko 147/2023 Dekretua aldatzea.

Hamabigarren artikulua.

Aldatu egiten da 5. artikulua 1. apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

"1. – Dekretu honen ondorioetarako, gizarte-bazterkeriako arriskuan daude, inolako ebaluazio-txostenik behar izan gabe, honako muga hauek gainditzen ez dituzten urteko diru-sarrerak egiaztatzen dituztenak:



- a) Hiru kide edo gehiagoko bizikidetza-unitateen kasuan: 20.000 (hogei mila) euroko edo gehiagoko urteko diru-sarrera haztatuak.
- b) Bi kideko bizikidetza-unitateen kasuan: 18.000 (hemezortzi mila) eurotik beherako urteko diru-sarrera haztatuak.
- c) Kide bakarreko unitateen kasuan: 14.000 (hamalau mila) eurotik beherako urteko diru-sarrera haztatuak. "

VI. KAPITULUA

Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzat etxebizitzaren arloko ekintza positiboko neurriei buruzko Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2006ko urriaren 4ko Aginduaren aldaketa.

Hamahirugarren artikulua.

Aginduaren izenburua aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

"Agindua, 2006ko urriaren 4koa, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzat etxebizitzaren arloko ekintza positiboko neurriei buruzkoa"

Hamalagarren artikulua.

Aldatu egiten da 2. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«Agindu honen aplikazio-eremuan sartzen dira, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan xedatutakoaren arabera, indarkeriaren ondorioz prekaritate ekonomikoko egoeran dauden biktimak edo etxebizitza horiek eskuratzea beharrezkoa denean suspertzeko.

Aurreko paragrafoan aipatzen den indarkeriak barne hartzen ditu bikotekidearen edo bikotekide ohiaren aurkako indarkeria, familia barruko indarkeria, sexu-indarkeria, feminizidioa, emakumeen eta neskatoen salerosketa, sexu-esplotazioa, emakumeen genitalen mutilazioa, behartutako ezkontzak eta beste praktika tradizional kaltegarri batzuk, derrigortzea edo askatasuna arbitrarioki kentzea, tortura, indarkeria instituzionala, jazarpena, genero-indarkeria politikoa, indarkeria digitala eta sare sozialetakoa, obstetrikoa, sexu- eta ugalketa-eskubideen urraketa, bai eta emakumeen eta neskatoen duintasuna, osotasuna edo askatasuna urratzen duen edo urra dezakeen beste edozein indarkeria mota ere, baldin eta nazioarteko tratatuetan, Espainiako Zigor Kodean edo estatuko edo autonomia-erkidegoko araudian aurreikusita badago.

Emakumeen aurkako indarkeria matxistatzat hartzen da, halaber, biktimak babesten dituzten pertsonen aurka egiten den indarkeria, bai eta haien ingurune hurbil edo afektiboaren aurka egiten dena ere, bereziki seme-alaben edo beste senide batzuen aurka, emakumea atsekabetzeko asmoz».

**Hamabosgarren artikulua.**

Aldatu egiten da 3. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktima dela egiaztatzea.

Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktima dela egiaztatzeko, bitarteko hauetakoren bat erabiliko da: epaia, urruntze-agindua, oinarrizko gizarte-zerbitzuen edo zerbitzu espezializatuen txostena edo beste edozein administrazio publikoren txostena, emakumeen aurkako indarkeria matxistako gertakariak daudela ziurtatzen duena.

Interesdunak ekintza positiboko neurriak aplikatzeko eskaera egin aurreko bi urteetan eman edo egin beharko dira egiaztapen guztiak. "

Hamaseigarren artikulua.

Aldatu egiten da 4. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

"Ekintza positiboko neurriak honako hauek izan daitezke:

- 1. Babes publikoko etxebizitzak eta antzekoak errentamendu-erregimenean esleitzeari dagokionez, lehentasunezko kupo batean sartzea eta baremazio-prozeduran puntuazio handiagoa lortzea.*
- 2. Babes publikoko etxebizitza bat edo antzeko etxebizitza bat zuzenean esleitzea. "*

Hamazazpigarren artikulua.

Aldatu egiten da 5. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

"Sartze horrek 10 urteko iraupena izango du, dagokion egiaztagiriaren datatik aurrera. Salbuespenez, epe hori luzatu ahal izango da, emakumearen egoera zehatzak hala eskatzen badu eta premia hori oinarrizko gizarte-zerbitzuen edo zerbitzu espezializatuen txosten baten bidez egiaztatzen bada. "

VII. KAPITULUA

Etxebizitza erosteko finantza-neurriei buruzko Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2010eko urriaren 6ko Agindua aldatzea.

Hemezortzigarren artikulua.

Aldatu egiten da 2. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

"1.- Honako hauek hartuko dira etxebizitza erosteko jardun babesgarritzat:

- a) Babes publikoko etxebizitza erostea.*



b) Azalera-eskubidean eraikitako babes publikoko etxebizitzaren titularrek lurzorua erostea.

2.- Etxebizitza-erosketaren arloko jarduketara babesgarriak aplikatu behar diren finantza-neurriak mailegu kualifikatuak izango dira, Agindu honetan aurreikusitako kasuetan eta baldintzetan. "

Hemeretzigarren artikulua.

IV. kapitulua kentzen da, etxebizitza libre erabilia erosteko dirulaguntzei buruzkoa.

Hogeigarren artikulua.

Ezabatu egiten da 24. artikuluan 4. apartatua, etxebizitza libre erabilia erosteko dirulaguntzari dagokionez alde bakarreko hipoteka bat eratzeko betebeharrari buruzkoa.

Hogeita batgarren artikulua.

Aldatu egiten da 25. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

"25. artikulua. Mailegua eskuratzea.

- 1. Babes publikoko etxebizitza erostearen kasuan, administratiboki aitortutako mailegua eskuratzeko, salerosketa-eskritura publikoa formalizatu beharko da aldez aurretik, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioarekin finantza-lankidetzarako hitzarmena sinatu duen kreditu-erakunderen batekin egingo da. Onuradunak dirulaguntza emateko ebazpena aurkeztu beharko du dagokion kreditu-erakundean. Era berean, salerosketaren eskritura publikoa aurkeztu beharko du Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzan, 3 hilabeteko epean, behin betiko kalifikazioa ematen denetik edo salerosketa-kontratuari oniritzia ematen zaionetik zenbatzen hasita, salerosketa-kontratua behin betiko kalifikazioaren ondorengoa bada. "*

Hogeita bigarren artikulua.

Kendu egiten da lehenengo xedapen gehigarria.

VIII. KAPITULUA

Etxebizitza-eskatzailen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzko Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2012ko urriaren 15eko Agindua aldatzea.

Hogeita hirugarren artikulua.

Aldatu egiten da 25. artikuluan 3. apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

"3.- Erosketa-erregimeneko babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko prozeduretan parte hartzeko, gutxienez etxebizitzaren titularretako batek Euskal Autonomia Erkidegoan errolatuta egon beharko du gutxienez prozedura hasi baino urtebete lehenago. Errentamendu-erregimeneko prozeduretan, gutxienezko epea hiru urtekoa izango da. "



Hogeita laugarren artikulua.

Aldatu egiten dira 47 bis artikulua 2. eta 5. apartatuak, eta honela geratzen dira idatzita:

"2.- *Hainbat kolektibotako kide diren pertsonak edo bizikidetz-unitateak honako lehentasun honen arabera sartuko dira kupoetan: eskubide subjektiboa, 36 urtetik beherakoak, premia berezia eta orokorra.*"

"5.- *Etxebizitzaren kupoek, behin-behinekoak zein behin betikoak izan, honako ehuneko hauek errespetatu beharko dituzte:*

- **a) Artikulu** honen 1. apartatuaren a) azpiapartatua aipatutako kolektiboaren kasuan, etxebizitza egokituen % 100 gordeko dira.
- **b) 1. apartatuko b) azpiapartatua aipatutako kolektiboaren kasuan, egokitu gabeko etxebizitzaren % 50 gordeko dira gehienez.**
- **c) 1. apartatuko c) azpiapartatua aipatutako kolektiboaren kasuan, egokitu gabeko etxebizitzaren % 40 gordeko dira gehienez."**

Hogeita bosgarren artikulua.

60. artikulua aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

"*Kapitulu honetan araututako esleipen-prozedura sustatzaile pribatuek erositako zein alokatutako babes sozialeko etxebizitzaren eta etxebizitza tasatu autonomikoen lehen esleipenei aplikatuko zaie, betiere sustapen itunduak, udalekin egindako hitzarmenei lotutakoak edo Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeek sustatutakoak ez badira. Azken horiek zuzenean esleitu ahal izango dizkiete etxebizitza horiek xede duten kolektiboari, egokitzapenaren arabera eta betiere pertsona edo bizikidetz-unitate horiek babes publikoko etxebizitzak eskuratzeko baldintzak betetzen badituzte*"

IX. KAPITULUA

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko uztailaren 21eko Agindua aldatzea, etxebizitzaren eta eraikinen birgaitzearen, irisgarritasunaren eta energia-efizientziaren arloko jarduketa babesgarrietarako finantza-neurriei buruzkoa.

Hogeita seigarren artikulua.

Aldatu egiten da 2. artikulua, eta 4. apartatua gehitzen da. Honela geratzen da idatzita:



«4.- **Ez** da finantza-neurririk emango erregai fosilez elikatutako galdarak instalatzeko edo aldatzeko, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2024ko apirilaren 24ko 2024/1275 (EB) Zuzentarauan, eraikinen energia-efizientziari eta transposizio-arauei buruzkoan, ezarritakoaren arabera».

Hogeita zazpigarren artikulua.

Aldatu egiten da 46. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

"46. artikulua.- Jasotako dirulaguntzak itzultzeko betebeharra.

1- Etxebizitza edo lokalen pertsona edo erakunde titularrek, 6.000 euroko edo hortik gorako laguntza ekonomikoak jaso badituzte interes-puntuen laguntza eta/edo subsidio gisa, barne hartuta irisgarritasuna sustatzeko dirulaguntza-lerro bereziari, obra partikularrak gauzatzeari (1. lerroa) eta obra komunitarioak gauzatzeari (2. lerroko itzuli beharrik gabeko banakako laguntzak) dagozkienak (2. lerroko itzuli beharrik gabeko laguntza indibidualak), ezin izango dituzte etxebizitza edo lokal horiek inter vivos borondatez erabili gauzatutako obraren ziurtapenetik 10 urteko epean, aldez aurretik jasotako laguntzak itzuli direla egiaztatzen ez bada, itzultzerakoan dagokion legezko interesaren arabera eguneratuta. Zenbateko horretan ez dira sartzen jabeen erkidegoari zuzenean emandako laguntzak.

2.- Itzulketatik kanpo geratzen dira etxebizitzaren edo lokalaren titularkide baten alde egiten diren esleipenak, baldin eta Izatezko Bikoteen Erregistroan inskribatutako edo inskribatu gabeko bikoteen banantze-, dibortzio- edo haustura-prozesuen ondorioz gertatzen badira, bai eta lehen mailako odol-ahaidetasuna duten pertsonen osatutako bizikidetzaren unitateen hausturaren ondorioz gertatzen diren esleipenak ere.

3.- 6.000 euroko edo hortik gorako laguntza ekonomikoak emateko ebazpena jakinarazi ondoren, etxebizitzaren edo lokalaren pertsona edo erakunde titularrek etxebizitzaren jabaria erabiltzeko mugaren erregistro-inskripzioa egin beharko du 10 urtez, eta mugaketa horren egiaztagiria aurkeztu beharko du laguntza eman duen Administrazioan.

4.- Administrazio emaileak dokumentazio hori jaso ondoren, laguntza edo sorospena ordaintzeko aginduko da. Era berean, mailegua eman behar duen kreditu-erakundeak kontratua sinatu ahal izango du.

5.- Errentariak egindako esku-hartzeetan eta jabeak baimendutako esku-hartzeetan, jabeak konpromisoa hartuko du organo emailearen aurrean etxebizitzaren jabaria erabiltzeko mugapenaren erregistro-inskripzioa egiteko 10 urtez, eta mugaketa horren egiaztagiria emango dio administrazio emaileari.

6.- Artikulu honetan aipatzen diren pertsonen edo erakundeek, baldin eta etxebizitzaren edo lokalaren jabetza edo haren gaineko beste edozein eskubide inter vivos eskualdatu badute, ezin izango dute laguntza berririk jaso, artikulu honetan ezarritako itzulketa jasota ez dagoen bitartean. "

X. KAPITULUA



Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko abenduaren 7ko Agindua aldatzea, alokairua eta etxebizitzaren eta bizitegi-erakinen bestelako erabilerak sustatzeko jarduketari buruzkoa.

Hogeita zortzigarren artikulua.

18. artikuluari d) apartatua gehitzen zaio, eta honela geratzen da idatzita:

"d) Bizigune Etxebizitza Hutsen Programaren esparruan, etxebizitza librearen Alokabide SARI gozamenean lagatzen bazaizkio kudeatzeko, 12.000 euroko laguntza eman ahal izango da etxebizitza bakoitzeko, baldin eta etxebizitza horiek gutxienez 20 urteko epean bideratzen badira errentamendu babestura, Alokairu Merkatuaren Estatistikak (AME) ratio bererako etxebizitza dagoen udalerriari egotz dakiokeen batez besteko prezioaren % 85eko gehieneko errentarekin".

Hogeita bederatzigarren artikulua.

Aldatu egiten da 28. artikuluen 3. apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

"3.- Programa gutxienez 2 etxebizitza edo bizitokiz osatutako etxebizitza kolaboratiboak sustatzera bideratuta dago, baldintza hauek betetzen badituzte:

- a) Kooperatibistak edo elkartekideak etxebizitza eta espazio komunak erabiltzeko eskubidea baino ezin izango du eskuratu, eta higiezin kooperatibaren edo irabazi-asmorik gabeko elkartearen titulartasunekoa izango da.*
- b) Erabilera-eskubidea mugagabea eta inter vivos edo mortis causa egintzen bidez eskualdatua izan daiteke, baina, nolanahi ere, ohiko bizilekurako erabili behar da.*
- c) Espazio komun gisa partekatzen diren oinarritzko zerbitzuak ezarriko dira, hala nola sukaldia, erabilera anitzeko gelak, aisialdi-guneak, berdeguneak edo haurrentzako guneak.*

Hogeita hamargarren artikulua.

Aldatu egiten da 29. artikuluen 4 f) apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

"f) Programa honetako laguntza publikoak eskuratzeko, erabilera-lagapenagatiko hileko kanona ezin izango da 800 eurotik gorakoa izan (gehienez ere, urtero eguneratu ahal izango da, Kontsumoko Prezioen Indizearen (KPI) arabera), eta kapital sozialaren hasierako ekarpena edo hurrengoak nahitaezkoak izango dira 60.000 eurotik gorakoak, eragiketa osoaren % 30eko mugarekin.

Hogeita hamaikagarren artikulua.

Aldatu egiten da 30. artikuluen 1 b) apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

"b) Erabilera-lagapenagatiko hileko kanona 700 eurotik gorakoa ez bada eta hasierako ekarpena 35.000 eurotik gorakoa ez bada, laguntzaren zenbatekoa 12.000 eurokoa izango da etxebizitza libre bakoitzeko, eta 15.000 eurokoa babes publikoko etxebizitza bakoitzeko."

Hogeita hamabigarren artikulua.



Aldatu egiten da 33. artikulua 1. apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

"1.- Errentamendu babestuko kontratuek gutxienez 5 urteko iraupena izango dute errentatzailea pertsona fisikoa bada, eta zazpi urtekoa errentatzailea pertsona juridikoa bada. Hirugarren sektoreko erakundeek gela alokairu-kontratuak sinatu ahal izango dituzte, gutxienez pertsona juridikoentzat xedatutakoa baino epe laburragoan. Zuzkidura-bizitoki kasuan, etxebizitza eskuratzeko epea hilabetekoa izango da, gehienez ere urtebeterako, eta urtero luzatu ahal izango da, urtebeterako, lau aldiz, edo udal-ordenantzan xedatutako araubidearen arabera, hala badagokio. "

Hogeita hamahirugarren artikulua.

Aldatu egiten da 34. artikulua 2 c) 1) apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

"1) Errentamendu babestura bideratutako etxebizitzaren sustapenaren kasuan:

- a) % 20ra arte, finantza-laguntzak esleitzeko ebazpena jakinarazi ondoren.*
- b) % 40raino, obraren % 30 ziurtatu ondoren.*
- c) % 20ra arte, obra osoa jaso ondoren.*
- d) Gainerako ehunekoa, lehen erabilera-kontratua sinatu dela egiaztatu ondoren».*

XI. KAPITULUA

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2022ko apirilaren 26ko Agindua aldatzea, zeinaren bidez arautzen baitira Gaztelagun programako etxebizitzaren alokairurako laguntzak.

Hogeita hamalaugarren artikulua.

Aldatu egiten da 2. artikulua 2. apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

"2.- Etxebizitzaren hasierako hileko errenta ez da izango 900 eurotik gorakoa Bilbon, Donostian eta Gasteizen; 800 eurotik gorakoa Bilboko eta Donostiako eremu funtzionalean eta 10.000 biztanletik gorako udalerrietan; eta 750 eurotik gorakoa gainerako udalerrietan.

Hala ere, Gaztelagun programaren onuradun izaten jarraituko dute hasierakoaren ondorengo urterokoetan zenbateko horiek gainditzen dituzten errentak ordaintzen dituzten pertsonak, errenta horiek Hiri Errentamenduei buruzko azaroaren 29ko 29/1994 Legearen 18. artikuluan aurreikusitako baldintzetan eguneratu direlako.

Etxebizitzaren arloan eskumena duen sailburuaren agindu bidez bizitegi-merkatu tentsionatuko eremu izendatzen diren udalerrien kasuan, muga horiek handitu ahal izango dira, Alokairu Merkatuaren Estatistikak (AME) ratio bererako etxebizitza dagoen udalerriari egotz dakiokkeen batez besteko prezioaren % 95era arte, igoera hori aurreko paragrafoan ezarritako gehieneko muga baino txikiagoa denean izan ezik "

Hogeita hamabosgarren artikulua.

Aldatu egiten dira 5. artikulua 4. eta 7. apartatuak, eta honela geratzen dira idatzita:



"4. Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako etxebizitza libre bateko logelen errentamendu-, azpierrentamendu- edo alokairu-kontratu baten titularra izatea. Kontratu horrek haren ohiko bizileku iraunkorra izan beharko du. Agindu honen ondorioetarako, gelen alokairutzat joko da etxebizitza baten lagapen partziala, hau da, haren dependentziaren baten lagapen partziala, azalera-eskubidearen edo errentamendua ez den beste edozein eskubideren jabeek, gozamendunek edo tindatzaileek kostu bidez egina».

7.- Honako diru-sarrera hauek egiaztatzea:

Eskatzaileek, banaka, urtean 30.000 euroko edo gutxiagoko eta 3.000 eurotik gorako diru-sarrera gordinak dituztela egiaztatu beharko dute.

Familia-unitate osoak urtean 36.764 euroko edo gutxiagoko eta 3.000 eurotik gorako diru-sarrera gordinak dituela egiaztatu beharko du.

Familia ugarien kasuan, urtean 39.184 euroko edo gutxiagoko eta 3.000 eurotik gorako diru-sarrera gordinak dituztela egiaztatuko da.

Ezarritako gehieneko diru-sarrerak urtero eguneratuko dira, eskaera-dataren aurreko urteko abenduaren 31n indarrean zegoen urte arteko kontsumoko prezioen indizearen arabera, eta Alokabideren webgunean argitaratuko dira.

Diru-sarrerak zenbatzeko, kontuan hartuko da, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitorpena aurkezteko epea amaitu ondoren, eskaera egin aurreko zergaldia edo, onuragarriagoa izanez gero, eskaera egin aurreko hamabi hilabeteak. Diru-sarrera konputagarriak zerga-oinarri orokorra eta aurrezki-oinarria izango dira.

Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako betekizunak betetzea».

Hogeita hamaseigarren artikulua.

7. artikuluari 3. eta 4. zenbakiak gehitzen zaizkio, eta honela geratzen dira idatzita:

"3.- Baldin eta etxebizitza berean bi bizikidetza-unitate edo gehiago bizi badira, Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 4/2022 Legearen 25.2 artikuluan aurreikusitako ahaidetasun-harremanik gabe, azpierrentamenduaren edo gelen alokairuaren arabera, gehienez bi laguntza eman ahal izango dira etxebizitza bakoitzeko, agindu honetan eskatutako baldintzak bete ondoren. Bi eskabide baino gehiago badaude, aurkeztu diren hurrenkeraren arabera ebatziko dira.

4.- Bi laguntza emateko, aurreko apartatuan aurreikusitakoaren arabera, ezinbesteko baldintza izango da bizikidetza-unitate bakoitzak bere errentamendu-, azpierrentamendu- edo gelen alokairu-kontratua izatea. "

Hogeita hamazazpigarren artikulua.

Aldatu egiten da 11. artikuluen 1 e) apartatua, eta honela geratzen da idatzita:



«e) Etxebizitzaren errentamendu-kontratuaren kopia, non, gutxienez, Hiri Errentamenduen azaroaren 24ko 29/1994 Legearen 37. artikuluan aipatzen diren edukiak jasoko baitira, azpierrentamendu-kontratuaren kopia, errentatzailearen idatzizko adostasunarekin, eta haren kausa den kontratua edo logelen alokairu-kontratuaren kopia.

Kontratua Euskal Autonomia Erkidegoko Hiri Finken Errentamendu Kontratuen Erregistroan inskribatuta badago, inskripzio-ziurtagiriaren edo fidantza gordailutu izanaren frogagiriaren kopia aurkeztuko da.

XII. KAPITULUA

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2022ko ekainaren 30eko Agindua aldatzea, babes publikoko etxebizitzaren gehieneko prezioak eta errentak eta zuzkidura-bizitokien kanona zehazteari buruzkoa.

Hogeita hemezortzigarren artikulua.

11. artikuluari 3. apartatua gehitzen zaio, eta honela geratzen da idatzita:

"3.- Salmentako gehieneko prezioak igo ahal izango dira, araubide orokorreko babes sozialeko etxebizitzetarako indarrean dagoen erreferentziazko prezioaren gainean 1,7rainoko koefiziente zuzentzailea aplikatuz, soilik sustatzaileak sestrapeko baldintza geoteknikoen ondoriozko eraikuntza-kostu bereziki altuak daudela egiaztatzen duenean. Ondorio horietarako, barnean hartuko dira, besteak beste, zimendu sakon edo bereziei, sotoetako hormak egiteko euste-sistemei edo azpipresio hidrostatikoen aurreko jarduketei lotutako kostuak.

Inguruabar horiek egiaztatzeko, sustatzaileak zimenduen arloan eskumena duen teknikari batek sinatutako txosten bat aurkeztu beharko du. Txosten horrek irizpide tekniko eta ekonomikoen bidez justifikatuko du alegatutako salbuespena eta obren egikaritze materialaren aurrekontuan duen eragin zuzena.

XEDAPEN IRAGANKORRA. Prozeduren araubide iragankorra.

Dekretu hau indarrean jartzen den egunean ebatzi gabe dauden prozedurei aplikatuko zaie deketu hau, salbu eta hogeita seigarren artikuluan xedatutakoarekin lotuta 2024ko abenduaren 31ra arte aurkeztutako eskabideei, erregai fosilez elikatutako galdarak instalatzeko edo aldatzeko finantza-neurririk ez ematea; kasu horretan, eskaera egiten den unean indarrean dagoen araudia aplikatuko da.

Hogeita zazpigarren artikuluan jasotako kasuan, deketu honetan xedatutakoa aplikatuko zaie, halaber, jasotako dirulaguntzak ebatzitako prozedurei, baldin eta obraren amaierako ziurtagiririk ez badute, eta hogeita hemezortzigarren artikuluan jasotako kasuan, araubide autonomikoko etxebizitza tasatuen gehieneko prezioen igoera.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA. Erregelamenduzko xedapenen mailaren babesa.

Agindu hauen ordena-mailari eusten zaio:



8. artikulua, "Bizigune" Etxebizitza Hutsen Programa arautzen duen abenduaren 23ko 466/2013 Dekretuaren azken xedapenetako hirugarrenarekin lotuta.

21.1 artikulua, Merkatu libreko etxebizitzak alokatzeko ASAP (Alokairu Segurua, Arrazoizko Prezioa) bitartekaritza-programa arautzen duen irailaren 17ko 144/2019 Dekretuaren azken xedapenetako bigarrenarekin lotuta.

5. artikulua, Etxebizitza bat okupatzeko eskubide subjektiboari buruzko urriaren 10eko 147/2023 Dekretuaren azken xedapenetako laugarrenarekin lotuta.

Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzat etxebizitzaren arloko ekintza positiboko neurriei buruzko Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2006ko urriaren 4ko Aginduaren 2., 3., 4. eta 5. artikulua.

Etxebizitza-eskatzailen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzko Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2012ko urriaren 15eko Aginduaren 47 bis eta 60. artikulua.

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko uztailaren 21eko Aginduaren 2. eta 46. artikulua, etxebizitzaren eta eraikinen birgaitzearen, irisgarritasunaren eta energia-efizientziaren arloko jarduketa babesgarrietarako finantza-neurriei buruzkoak.

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko abenduaren 7ko Aginduaren 18., 28., 29,30 eta 34. artikulua. Agindu hori alokairua eta etxebizitzaren eta bizitegi-eraikinen bestelako erabilerak sustatzeko jarduketei buruzkoa da.

Gaztelagun programako etxebizitzaren alokairurako laguntzak arautzen dituen Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2022ko apirilaren 26ko Aginduaren 2., 5., 7. eta 11. artikulua.

Ondorioz, maila bereko arauak manu horiek aldatu ahal izango dituzte.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA. Indarrean jartzea

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2025eko... aren... (e) (a) n.

Lehendakaria,

IMANOL PRADALES GIL

Etxebizitza eta Hiri Agendako sailburua,

DENIS ITXASO GONZALEZ

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ETXEBIZITZA ETA
HIRI AGENDA SAILA

ETXEBIZITZA ETA
HIRI-AGENDA